



**UDALBATZAK 2007KO URTARRILAREN 26AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION
AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila zazpiko urtarrilaren hogeita seiko goizeko 08:00ak zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZÁLEZ alkate jaunaren (SV-ES) esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira:

- Joaquín ACOSTA PACHECO
- José Miguel GOLMAYO GAUNA
- Joseba Iñaki URIBE BURGOA
- Gema INSAUSTI MERINO
- José Ángel SÁNCHEZ GALLARDO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Silvia ASTORGA MARTÍNEZ
- Jesús OFICIALDEGUI RUIZ
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
- Luís M^a OIARBIDE ARIZMENDI
- José M^a BURGOS VIÑARÁS
- Mikel Carcedo Mitxelena
- Juan Ignacio MÉNDEZ BEGUÉ
- Maite PEÑA LÓPEZ
- Jon Ugutz ORMAETXEA BERROETA
- Lucía PERALTA RODRÍGUEZ
- M^a Angeles BASTOS FERNÁNDEZ
- Elías MAESTRO RUIZ
- José CRUZ LEGORBURU AYESTARAN

Ez da etorri, gaixo zegoelako, baina ezinetorria adierazi du Mikel Arretxe Gutierrez jaunak (EAJ).

Bertan dago udal kontu-hartzaile Jose M^a ARENZANA GARCIA jauna (jakinarazten da bilkuratik alde egin zuela Gai Zerrendako 7. puntuan).

Bertan dago egintzaz fede emateko idazkari nagusi Fco. Javier LESCA EZPELETA jauna.

1. Udalbatzak 2006ko irailaren 29ko ohiko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.

Idazkariak 2006ko irailaren 29ko ohiko bilkurari dagokion akta irakurritakoan.

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

Onartzea Udalbatzak 2006ko irailaren 29an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.

2. Posta, erabaki ofizialak eta Lehendakaritzako kudeaketak.



Idazkariak, Estatistikako Instituto Nazionalak Errenteriako Udalaren Erroldan, 2006ko urtarrilaren lein berrikusitako ondoren, atera diren biztanle-kopurua 37.853koa dela jakinarazi du.

Jarraian, Jaizkibia, S.A. sozietatea eratu dela jakinaraziz idatzi bat jaso dutela, esan du.

3. Alkateak emaniko ebazpenen (2006ko 1868zk.tik 1968 zk.ra eta 2007ko 1 zk.tik 89 zk.ra, denak barne), zinegotzi eskuordetuek (2006ko 2964 zk.tik 3079 zk.ra eta 2007ko 1 zk.tik 186 zk.ra, denak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordeak emanikoen berri ematea.

Idazkariak eman du Alkateak emaniko ebazpenen (2006ko 1868zk.tik 1968 zk.ra eta 2007ko 1 zk.tik 89 zk.ra, denak barne), zinegotzi eskuordetuek (2006ko 2964 zk.tik 3079 zk.ra eta 2007ko 1 zk.tik 186 zk.ra, denak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordeak emanikoen berri.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4. 2007ko Aurrekontua: erreklamazioak ebatzi eta behin-betiko onespena ematea.

Udalbatzak, 2006ko abenduaren 18an eginiko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion 2007ko Aurrekontuari.

Erabaki hori 2006ko abenduaren 27ko GAOn, 244 zk.an, eta Udaleko iragarki-oholean argitaratu zen erreklamazioak egin ahal izateko.

Jendaurrean egondako garaian, 2006ko abenduaren 28tik 2007ko urtarrilaren 16ra arte, bi erreklamazio-idazti aurkeztu dituzte urtarrilaren 15ean eta 16an, 611 eta 682 sarrera-erregistro zenbakiekin. Bertan, aurrekontuari hainbat erreklamazio egiten zaizkio.

Erreklamazio horiek aztertu ditu udal kontu-hartzaileak 2007ko urtarrilaren 16an eginiko txostenean adierazten denez. Txostenean, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikuluan -Gipuzkoa Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuena- aurreikusitako kasu bakar bati ere eragiten ez dioenez aurrekontuari, atzera botatzeko proposamena egiten du.

Ogasuna Batzordeak eginiko txostena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi duenez, Ogasuna Batzordean hartu zuten jarrerari eutsiz, abstenitu egingo dira erreklamazioari dagokionez, eta aurrekontuaren aurka bozkatuko dute. Berak ez daki bi puntuak bananduta joango diren, baina berriro dio, Ogasuna Batzordean erakutsitako jarrera berarekin jarraitzen dutela.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez, hasiera batean bi puntuak elkarrekin bozkatzekoak ziren, baina badirudi bananduta bozkatu daitezkeela, hots, lehenik txostena, eta gero, erreklamazioak. Ondoren, idazkariari bozketa-kontua argitzeko eskatu dio.



* Idazkariak Ogasuna Batzordeak eginiko proposamena argia dela esan du. Hau da, bozkatu behar dena zera da: bi erreklamazioak atzera botatzea eta 2007ko aurrekontuari behin-betiko onespena ematea.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez, bere ustez, bi puntu izango lirateke: erreklamazioak atzera botatzea eta aurrekontua behin-betiko onartzea, bi alderdiek eginiko proposamenaren arabera.

* Jendartean zegoen Murua jaunak txostenaren edukia ez duela ezagutzen esan du, eta zentzu horretan, beraz, edozein balorazio egin dezaketela. Gainera, etxebizitzaren afera bezain kontu garrantzitsuan gustatuko litzateke Udalbatza osatzen duten gainontzeko alderdi politikoen gaiari buruzko iritzia ematea, hain zuzen, gizartearentzako lehentasun handia duen kontua delako. Horrela, bere irudiko, aurten Udalak lurzoru ondare-publikoaren oztopoa -beste urtetan ohikoa izaten delako- nolabait saihesteko ahalegin txiki bat egin du, horretarako bi milioi euroko partida bat ipiniz. Edonola ere, bi milioi hauek babes ofizialeko etxebizitzak egin asmoz lurzorua erdiesteko baldin badira, ez liratekeela nahikoa izango esan behar dute, zeren eta Hirigintzako Lurzoru Lege berriaren arabera, xede horretako aferei lehentasuna eman behar zaie, eta beraz, argi dago xede horretarako gastu-portzentaje handia egin beharko litzatekeela, eta espedientean jasota dauden datuei begiratuz gero, argi dago, halaber, ez dela betetzen. Era berean, uste dute bi milioi horiek Aurrekontuan era anbiguoan jasotzen direla, hain zuzen ez delako zehazten zein izango den horien xedea. Gogorarazten du aurreko ekitaldian, epigrafe horrekin berarekin, zati bat Niessenen lokal bat erosteko erabili zela. Aurten, puntu honetaz irakurketa fidagarriagoa egitea saihestearren, modu anbiguoan jasotzen da eta ez dakite benetan zertarako erabiliko diren bi milioi horiek. Eta joan den urtean erabili ziren gauza berarako erabiliko balira, ziur aski aurreko urteetako egoera berdinarekin aurkituko lirateke, hau da, etxebizitzaren politikan zero euro gastatuko lukete eta modu horretan indarrean dagoen legeria bete gabe utziko. Gainera, bestelako kontua izango litzateke afera hori errebindikatzen urteak daramazkiten giza-agenteei egingo luketen interpretazioa. Ondoren, Udalbatzari gogorarazi dio 2003an Euskal Auzitegi Gorenak eurek defendatzen dituzten planteamenduaren aldeko epaia eman zuela. Ildo horri jarraiki, tramitatzeko onarturiko erabakiak daudela esan du, hau da, susmatzen dute edo antzematen diete eurek defendatzen dituzten planteamenduak arrazoizkoak izan daitezkeela. Une hauetan, Udalbatzak berearekin setati jarraitzen duenez, derrigortuak daude beste errekurtsio bati sarrera ematera, eta horrekin -Epaitegiek aplikatzen duten dotrinak berorretan jarraituko balu- Udal honetako diruak oso egoera delikatuak geratuko dira. Euren ustez, zuhur jokatzuz gero, aurrekontuetan adierazten diren jarrera horiek zuzendu beharko lirateke, eta jakina, lehentasuna eman beharko liekete babes ofizialeko etxebizitzak egiteko bideratutako gastuei. Orain geratzen zaien kontu bakarra zera da: txosten teknikoa aztertzea, baina aitatu dituen aurrerakinekin, lehengo egoera berdinean daudela uste du, eta zoritxarrez, Udalbatza honek Aurrekontuaren aurkako errekurtsio berri bat aurkeztera derrigortzen dituela.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi duenez, eztabaida hau lehen ere askotan eman da, eta berak errekurtsioa egin dutenei izugarrizko jakinduria dutela antzematen die, non ziurtzat jotzen baitute, ez errekurtsioa aurkeztea soilik -horretarako eskubidea dute- baizik eta beste hainbat gauza. Hori horrela, uste du denborak eta tramitazioak erabakiko dutela auzia. Edonola ere, eurek txosten



eta proposamenen baitan jarduten dutenez, ez dute ezer gehiago eransteko. Jarraian, eman diren azalpenen arabera, lehenik txostenean adierazten dena bozkatuko dute, hain zuzen zinegotziek hori nahi dutela ulertzen duelako.

* Idazkariak proposamen bat bakarria dela esan du, eta erreklamazioak atzera botatzen badira, bestea onartzea dakarrela uste du, baina ez daitezkeela bi bozketa egin. Proposamen bakarria dela, Ogasuna Batzordeak hala egin zuelako.

* Oiarbide jaunak (EA), euren jarreraren inguruko galdera bat eginez, zera esan du: euren ustez, erreklamazioei buruzko bozketa bakarria egingo da, eta bozketa horretan erreklamazioak atzera botatzen badira, zuzen-zuzenean, Udalbatza berresten ibili gabe, Aurrekontua onartuta geratuko da. Ildo horri jarraiki, erreklamazioak direla-eta, batzordearen bileran abstenitutako alderdiak abstenituko lirateke, eta batzordean aurka bozkatuko zutenak, aurka agertuko lirateke, eta Aurrekontua, berriro bozkatzen ibili gabe, onartuta geratuko litzateke, esan du. Ondoren, ea idazkariak interpretazio bera egiten duen, galdetu du.

* Idazkariak, horixe dela Ogasuna Batzordearen nahia, adierazi du.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 12 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EB-IU), 2 boto aurka (PP) eta 6 abstentzioz (EAJ/PNV, EA),

E R A B A K I D U

- Atzera botatzea bi erreklamazioak eta 2007ko aurrekontuari behin-betiko onespena ematea.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) boto-azalpenak emateko alderdiei mintzatzeko aukera eman die.

* Elias Maestro jaunak (EB-IU) adierazi duenez, euren aldeko botoari esker Udal honek Aurrekontua izango du. Bestela, Aurrekontua airean geratuko litzakeela, esan du. Ondoren, Aurrekontu honen aldeko aukera egin badute, Gobernu Taldeko partaide gisa ontzat jo dutelako eta aurkezturiko alegazioen inguruan, Udal honetako kontu-hartzaileak, araudia ez dela betetzen adieraziz eginiko argudioek, ez dutela inolako funtsarik jakinarazi duelako izan da. Bere ustez, interpretazio horiek, hauteskundeak irabazita Alkatetzara heldutakoan, etxebizitza-politika hori egin nahiko lukeen alderdiak egiten ditu. Era berean, uste du sekula ez direla alderdi horiek hainbestetan aitatzen dituzten araudiak bete gabe utzi. Amaitzeko, bestetan bezala, alderdi horiek dira lehenengoak jakinarazten Udal honetako gobernatzailleak araudia eta legeria ez dutela betetzen. Aitzitik, bere irudiko, Aurrekontu honek araudia betetzen duenaren frogarik argiena, kontu-hartzaile jaunak eginiko txosten teknikoa da.

* Peralta andreak (PP) adierazi duenez, bere alderdiko partaideak koherenteak izan dira, izan ere, Ogasuna batzordean abstenitu baziren ere, orain denaren aurka bozkatu dute.

* Peña andreak (EAJ-PNV) adierazi duenez, bere alderdia soilik erreklamazioari dagokionez abstenitu da, izan ere, eurek Aurrekontuaren aurka baitaude.



* Oiarbide jaunak (EA) adierazi duenez, bere alderdiaren jarrera ezaguna da Aurrekontuari dagokionez. Hots: aurka bozkatu zuten. Eta orain abstenitu badira, erreklamazioari dagokionez egin dira, ez Aurrekontuaz.

Mintzaldiak amaitutakoan.

5. Oarsoaldea, S.A.k bi kreditu-kontu irekitzeko abal-eskaera.

Oarsoaldea, S.A.k bi kreditu-kontu eskatzeko beharrari buruz eginiko memoria egin du, hain zuzen 600.000 eurotan bi lokal erosteko eta hara eramateko egungo Oiarzungo bulego zentralean dituen instalakuntzak.

Kontu-hartzaileak 2007ko urtarrilaren 12an eginiko txostena ikusi ondoren.

Ogasuna Batzordearen proposamenez.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 18 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EB-IU, EAJ/PNV, EA) eta 2 abstentzioz (PP),

E R A B A K I D U

1. Baimena ematea Oarsoaldea, S.A.ri 300.000 €-ko bi lokal erdiestearren bi kreditu-kontu irekitzeko.

2. Udalak konpromisoa hartzen du, Oarsoaldea, S.A.ko bazkide eta sozietatearen akzioen % 25aren jabe denez, sozietateak eskaturiko kreditu-kontuez (600.000 €) erantzuteko, hots, kapital sozialean duen zatiaren proportzio berean (%25), baldin eta sozietateak ezin izango balio aurre egin hartutako konpromisoei. Kreditua ondorengo baldintzapean hartuko da:

- Epea: 15 urte
- Amortizazio konstantea, urteko 40.000 euro.
- Korritu-mota: Euroiborra + 0,50
- Ez erabiliaren gaineko komisioa: % 0
- Irekitze komisioa: % 0,05.

3. Alkatea baimentzea behar diren agiri guztiak sinatzeko.

6. Proposamena: zerga informazioa emateko Gipuzkoako Foru Aldundiko fiskalitaterako eta finantzatarako departamentuaren eta Errenteriako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea, eta aipatu hitzarmenaren I, II eta III eranskinak

Errenteriako Udalak zerga datu jakin batzuen lagapena eskatu du, hain justu, bere zereginak bete eta bere eskumenak gauzatu ahal izateko.

Abenduaren 19ko 565 Bis/2005 FORU AGINDUAK, zerga informazioa emateko lankidetzaren hitzarmen eredu onartzen du, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuaren eta Administrazio Publiko interesatuen artean sinatzekoa.

Udal Kontu-hartzaileak eta Errentetako teknikariak bere arloetan dituzten eginkizunak ondo betetzeko datuen lagapenaren beharrari buruzko txosten bateratua egin dute.



Gizarte Zerbitzuetako zuzendariak bere arloan dituen eginkizunak ondo betetzeko datuen lagapenaren beharrari buruzko txostena egin du.

Aholkulari juridikoak aipatu hitzarmena onartzearen aldeko txostena egin du.

Ogasuna Batzordeak 2007ko urtarrilaren 18an gaiari buruzko irizpena eman du.

Halaber Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak 2007ko urtarrilaren 18an eginiko bileran.

Ogasuna eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeen proposamenez.

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

1.- **Onartzea** Zerga informazioa emateko Lankidetzeta Hitzarmena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuaren eta Errenteriako Udalaren artekoa. Era berean, onartzea aipatu hitzarmenaren I., II. eta III. Eranskinak: lehenengoa, Internet bidez fitxategi informatikoak trukatzear datzan zerga informazio lagapena udal zergak kudeatu eta biltzearen ingurukoa; bigarrena, berriz, zerga informazio lagapena gizarte zerbitzuen alorren ingurukoa; eta hirugarrena, ostera, Hiri lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga eta beste udal zerga batzuk kudeatu eta biltzearen ingurukoa.

2.- Alkatea **ahalmentzea** aipatu dokumentuak sinatzeko.

7. Proposamena: Udal kale-izendegia eguneratzea.

Herria hirigintza aldetik garatzen ari denez, hainbat konturen inguruan (Errollda, Ondare Higiezinaren gaineko Zerga, jarduera-lizentzia eta erabilerakoa, etab.) beharrezkoa da Udalak kaleei izen berriak jartzea, eta modu honetan udal kale-izendegia behar bezala eguneratuta edukitzea. Ildo honi jarraiki, ondoko lekuak aitatu behar dira:

12 Área: Pontikako ibarra

24 Área: Aranguren

28 Área: Egiburu

45 Área: Añabitarte

32 Sektorea: Esnabide

56 Sektorea: Gamongoa

61 Sektorea: Sagardiburu



63 Sectorea: Azañeta

Era berean, ohartu gara "Errenteriako kale, auzo, biribilgune, etorbide, pasabide, parke, plaza eta zumardiak izendatzeko zerrenda"n, Udalbatzak 2005eko maiatzaren 27an onarturikoan, eginiko akats dela medio ez genuela sartu "Tellerialde plaza", Udalbatzak 2003ko urtarrilaren 31n eginiko osoko bilkuran hartutako erabaki bidez HAPOren Morrongiletako 8 Arean dagoen toki bati jarritakoa. Horregatik, kontu hau zuzendu beharrekoa da.

2006ko urriaren 28an, udal arkitekto Enrique Pontek gaiari buruzko txostena egin zuen.

Orobat, 2007ko urtarrilaren 11n, euskara koordinatzaile teknikari Arantxa Etchezurietak proposamenei buruzko txostena egin zuen.

Hirigintza batzordearen proposamenez,

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

1. Erantsirik doan planoan A, B, C, D, E eta F izeneko biribilgunei ondorengo Autonomia Erkidegokoko izenak jartzea.

- **A biribilguneari** (Pontikako ibarra): **Aragoi biribilgunea / Glorieta Aragón.**
- **B biribilguneari** (Gaztaño auzoa): **Gaztaño biribilgunea / Glorieta Gaztaño**
- **C biribilguneari** (P.Iglesias-M.Alduntzin): **Gaztelutxo biribilgunea / Glorieta Gaztelutxo**
- **D biribilguneari** (Navarra etorbidea-Gabierrota): **Gabierrota biribilgunea / Glorieta Gabierrota**
- **E biribilgunea** (Arramendi paseabide/Masti-Loidi kalea): **Masti-Loidi biribilgunea / Glorieta Masti-Loidi**
- **F biribilguneari**(Arramedi paseabidea/Txirrita-Maleo kalea): **Txirrita-Maleo biribilgunea / Glorieta Txirrita-Maleo.**

2. Ondorengo izenak jartzea hirigintza gunen berriei:

- 32 sektorea: Esnabide: eremu honetan, lehengoari jarraipena emanez, egin asmo dugun bideari: **Esnabide kalea**
- 24 area: Aranguren: **Aranguren poligonoa / Polígono de Aranguren.**
- 28 area: Egiburu: GI-3672 errepidea eta Egiburuberri pasealekua lotzen duen bideari: **Egiburu kalea.**



- 45 area: Añabitarte: Inguru horretako bide nagusiari: **Añabitarte kalea**, eta beste txikiagoari: **Belabaratz kalea**.
- 56 sektorea: Gamongoa: Arramendi paseabidetik eta San Markoko errepideko biribilguneraino doan zeharbideari: **Gamongoa pasealekua / Paseo Gamongoa**, eta beste bide txikiagoari: **Tobar kalea**.
- 61 sektorea: Sagardiburu: sektoreko zeharbide berriari: **Sagardiburu kalea**.
- 63 sektorea: Azañeta: Irteerarik gabeko zeharbide berriari: **Azañeta kalea**.

3. Zuzentzea "Errenteriako kale, auzo, biribilgune, etorbide, pasabide, parke, plaza eta zumardiak izendatzeko zerrenda"n, antzemandako akatsa, Udalbatzak 2005eko maiatzaren 27an onarturikoa. Zerrenda horri **"Tellerialde plaza"** gehituko zaio (Juan Olazabal kalea eta Bittor Idiazabal kaleko etxebizitzaren artean kokaturiko plaza).

8. Proposamena: Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea Kaputxinoetako N-leko lotunea eskualdatzeko.

Errenteriako Udalak Kaputxinoetako tunelaren ingurua berurbanizatzeko proiektua egin du, hots, N-leko ardatzetik hasita -non Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituretako Saila lanean ari baita Pasaiako saihesbidea egiten- Nafarroa etorbideraino.

2000ko otsailaren 28an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak onartu zuen lehengo N-leko zeharbidea Errenteriako Udalari eskualdatzea, hots, 466,600 km-tik 468,550 km-rako tartea (Nafarroa etorbidea) hain zuzen ere.

Hala ere, Kaputxinoetako tunela inguruan egiten ari den zatia ez zen eskualdatua izan Udal honi lehen aitatu akordioan, eta ondorioz, berorren jabea Gipuzkoako Foru Aldundia izaten jarraitzen du.

Kaputxinoetako lotune horrek hirilur izaera du, eta beraz, ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arautzailearen 11. artikuluan xedatutakoaren arabera (Gipuzkoako Errepide eta Bideetako Foru Arauaren Berreginiko Testua), Udal honi eskualdatu behako litzateke.

Kontuan hartu da ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Arautzailearen 11. artikulua, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren Berreginiko Testua onartzen duena.

Hirigintza batzordearen proposamenez.

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U



1. **Eskatzea** Gipuzkoako Goru Aldundiaren Bide Azpiegituretako Sailari **ondoko errepide-zatia udalerrri honi eskualda diezaion.**

• **Errenteriako Kaputxinoetan**

N-Ieko lotunea (erantsirik doan planoan adierazten den moduan).

2. **Ahalmentzea** Udalbatzeko alkatea eskualdaketa hori gauzatzeko sinatu beharreko agiri guztiak sinatzeko.

3. Ondare horri **alta ematea** udal Inbentarioan ondare publikoko izaerarekin, beti ere berori jaso ondoren.

4. **Lankidetzeta-hitzarmena egitea** bi administrazioen artean 2006ko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontuetan Kaputxinoetako biribilgunerako aurreikusitako inbertsioa arautzeko, non "Errenteriako Udaleko Kaputxinoetako Biribilgunea" izenarekin 200.000 euroko partida jasotzen baita.

9. Proposamena: gerontológico de Renteria, S.L. eta Errenteriako Udalaren arteko lankidetzeta hitzarmena onartzea

Gizarte Zerbitzuei buruzko 1996ko urriaren 18ko 5/1996 Legearen eta Eusko Jaurlaritzaren 2001eko uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren arabera Errenteriako Udalaren eskumena da bakarrik bizitzeko gauza diren nagusiei abegi-zerbitzu bat eskaintzea.

Gero eta gehiago dira, laguntza emateko familiarik ez dutenez, ostatu alternatibo bat eskatzen duten pertsonak.

Gerontológico de Renteria, SLk behin betiko egonaldirako egoitza zerbitzua emateko azpiegitura eta ekipamendu egokiak ditu; gainera Errenterian kokatua dago. Beraz, beharrezkoa ikusten da erakunde horrekin hitzarmen bat adostea Errenteriako Udalak bidalitako pertsonak bertan sartzeko lehentasunezko eskubidea izan dezaten.

Hirugarren Adineko koordinatzaileak gaiari buruzko txostena egin du.

Baita lege-aholkulariak ere.

Udal kontu-hartzailearen aldeko txostena ikusi ostean.

Gizarte Zerbitzuak batzordearen proposamenez.

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

1.- ONARTZEA Gerontológico de Renteria, SL eta Errenteriako Udalaren arteko Lankidetzeta Hitzarmena.

2.- Alkateari ESKUMENA EMATEA aipatu dokumentua sinatzeko.

10. Proposamena: hasierako onespina ematea euskararekin zerikusia duten hainbat jarduera eta egitasmo egitearren laguntzak emateko deialdia eta oinarriak arautzen dituen Ordenantzaren lehen aldaketa-proiektuari.



2006ko urtarrilaren 27an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Euskararekin zerikusia duten jarduera eta programak burutzeko diru-laguntzak emateko deialdia eta oinarriak arautzen dituen Ordenantza argitaratu zen, eta ondorioz, 2006ko otsailaren 15ean sartu zen indarrean.

Hori horrela, Euskararekin zerikusia duten jarduera eta programak burutzeko diru-laguntzak emateko deialdia eta oinarriak arautzen dituen Ordenantzaren **lehenengo aldaketa** egiteko proiektua erredaktatu dugu. Aipatu proiektu horrek jasotzen du 1., 2., 3., 5., 6. eta 7. artikulua aldatzeko proposmena.

2007ko urtarrilaren 9an, udal lege aholkulari M^a Isabel Martín Arzak gaiari buruzko txosten juridikoa egin du.

Era berean, 2007ko urtarrilaren 9an, euskara teknikari koordinatzaileak, Arantxa Etxezurieta Sarasolak, aldaketaren aldeko txostena egin du

Zuzenbide oinarriak

Kontuan hartu beharreko artikulua ondorengoak dira: Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legearen 4.1.a), 22.2.d), 25.1 eta 25.2.m), 47.1, 49, 65.2, 70.2 eta 84. artikulua;

Toki Jaurbidearen arloan gaur egun indarrean dauden xedapenen testu bateratuaren 55 eta 56. artikulua; Udal Erakundearen Antolakuntza eta Jardunerako Araudiaren 123, 126 eta 172. artikulua;

Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. eta ondorengo artikulua; eta 38/2003 Legearen 17.2. artikulua, Dirulaguntzen Lege Orokorrena.

Euskara Batzordearen proposamenez,

Udalbatzak, aho batez,

E R A B A K I D U

1.- **Onartzea hasierako izaeran** Euskararekin zerikusia duten jarduera eta programak burutzeko diru-laguntzak emateko deialdia eta oinarriak arautzen dituen Ordenantzaren **lehenengo aldaketa**, hots, espedientearekin batera eranskin gisa doana.

2.- Jendaurrean jartzea 30 egunez eta horretarako iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, lurraldean gehien saltzen den egunkarian eta Udaleko iragarki oholean argitara ematea, hain zuzen nahi duenak erreklamazio eta iradokizunak egin ditzan, horiek -egiten badituzte- Udalbatzak erabakiko ditu. Aitzitik, inork ez balu egingo, behin-betikotasunez onartutzat joko da.

11. Galdera-eskariak.

Inork ez du egin galdera-eskaririk.

ERREENTERIAKO UDALA

Idazkaritza



AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA

Secretaría General

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, batzordeburuak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:30 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, ____zenbakitik ____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.